



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2020ko EKAINAREN 26an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2020ko ekainaren 26an, eguerdiko 13.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakartzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maialen Alonso Labandibar
Vicente Garcia Momblona
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Mireia Ruiz Delgado

Bere ezin etorria azaltzen du: Jesus Maria Tejada Cantero eta Aitor Beistegui Fiallegas

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...


Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udaltzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2020ko ekainaren 2an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 2 de junio de 2020.**
 - **2020ko ekainaren 16an egindako ez ohiko bilkura/Sesión extraordinaria de fecha 16 de junio de 2020.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Beste batzuk/Otros.**
- 4. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

LEHENENGO PUNTUA

**ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA
ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- ▣ 2020 urteko ekainaren 2an egindako Udaltzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- ▣ 2020 urteko ekainaren 16an egindako Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 60/2020 tik 71/2020ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

3.1.FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IZFE	2.043,15
IKASI	101,93
NORTEGAS	60,73
NORTEGAS	23,28
IÑAKI ESNAL	100,00
IÑAKI ESNAL	100,00
IBERDROLA	172,97
FUNDIBIDE	38,72
EBA ERKIZIA	375,60
ALKIZAKO UDALA	792,18
DISTRIBUCIONES LOPETEGUI	75,07


Udalbatza honek, **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **3.883,63** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

4.1.LGTBI HARROTASUNAREN EGUNAREN INGURUKO MOZIOA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusita PSE-EE PSOE-ko udal ordezkariak aurkezturiko mozioa, non ondorengoa dioen:

“LGTBI HARROTASUNAREN EGUNAREN INGURUKO MOZIOA

JUSTIFIKAZIOA


50 urte igaro dira New Yorkeko Stonewall-ekotaberna batean LGTB pertsonak matxinatu zirenetik, eta euren eskubideen aldeko etengabeko erreklamazioa hasi zenetik. Hilabete geroago, Martha Shelley-k urte hauetan egindako bide luzea erakusten duten hitz hauek esan zituen: **irtenitzaletik eta “ibili eguzkipean”**.

Orduruz geroztik, munduko herrialde guztietan, baita Euskadin ere, egindako bidea luzea eta zaila izan da. Gaur egun, herrialde eta gizarte askok eskubideak euren konstituzioetan biltzen dituzte; beste batzuek ez dute jarrera argia erakusten eta onartu baino ez dute egiten. Baina beste herrialde askotan, bestelako sexu-orientabidea erakusten dutenak jazarri egiten dituzte edo, zuzenean, **espetxe-zigorrak jartzen dizkiete eta, zenbait kasutan, heriotza-zigorra aplikatzen diete.**

Espainia aitzindaria izan zen LGTB pertsonen eskubideen defentsan. Izan ere, aurten, 2020. urtean, LGTB aktibismoaren aldarrikapen nagusietako baten 15 urte betetzen dira: sexu bereko pertsonen arteko ezkontza. Lege hori aurrera atera ahal izan zen ez soilik LGTB mugimenduaren aktibismoagatik, baita gobernu sozialistak buru ziren bultzada politiko batengatik ere.

Hala ere, lortutakoa ez da atzeratzen. Populismoa eta eskuin muturra munduan eta gure herrian ezartzen ari diren diferentearekiko beldurraren inguruko hitzaldien aurka borrokatzen jarraitu behar da. Urratsak ematen jarraitu behar dugu egiteko asko dugulako oraindik.

Aurten, 2020. urtean, pandemiaren ondorioz sufritu dugun guztia kontuan hartuta, azpimarratu nahi dugu kolektibo ahulenek, baita LGTB kolektiboak ere, pandemia horren ondorioak bereziki sufritu dutela: LGTB kolektiboak aurretik jada bazituen problematikak konfinamenduak larritu egin dituela ikusi dugu: oso egoera zailak, batez ere gazteen artean, euren etxeetan, hauen sexu-orientazioa errespetatzen ez zaienean, genero barruko indarkeria handitzea, berez nahiko bakardadean bizi den kolektibo batean honek nahi ez duen bakardade-sentimendua handitzea, etab.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Erakutsitako erantzukizunaren ondorioz, LGTBI kolektiboaren aldarrikapenek ez dituzte Espainia osoko kaleak eta plazak beteko, aurreko urteetan egin duten moduan. Eta osasun publikoaren aldeko interes komuna nagusitzen den arren, horrek ez digu eragozten indar berberarekin aldarrikatzen eta lanean jarraitzea saretan gauzatutako aktibismoaren bidez edo gure egunerokotasunean. Era horretan, LGTBI kolektiboko pertsona guztientzako eskubide errealen, duintasunaren eta errespetuaren arloetan gizarte berdinzalebat lortuko dugu.


Aurten Harrotasuna LTB emakumeen berdintasunaren aldeko borrokara zuzendua dago **“2020, LTB Emakumeak: Sororitatea eta Feminismoa”** esloganaren bidez. Izan ere, LGTBI kolektiboaren barruan emakumeak dira gutxien ikusten direnak eta, zenbaitetan, ahaztuta geratzen direnak.

“La Caraoculta de la violencia hacia el colectivo LGTBI” txostenean jasotakoaren arabera, gure kolektiboaren aurka sexu-orientazioagatik indarkeria jasan zutenen erregistratutako biktimen % 72 gizon gay-ak ziren; % 21, berriz, emakume lesbianak eta % 2 pertsona bisexualak. Izan ere, Violeta Assiego-ren arabera, *“gizon gay-ak hobeto onartuta daude eta salatzeke eskubidea dutela sentitzen dute”*. ILGA elkarteak azaldu duenez, *“gizon homosexualen lehen eskaeratako bat ikusgaitasuna izan zen, gay figura onartzea... eta lortu zuten. Baina emakume lesbianen kasuan ikusezin egiteko asmo soziala dago oraindik... badirudi mamuak direla”*. Halaber, emakume transexualek ere diskriminazioa eta desparekotasuna jasaten dute, bereziki lan-mudura heltzeko duten zailtasuna kontuan hartzen badugu.

LGTBI pertsona guztiek eskubide eta berdintasun erreala izango luketen gizarte bat lortzeko euren lagunekin batera hainbeste denboran borrokatu zuten emakume Lesbiana, Transexual eta Bisexual guztiak LGTBI aktibismoaren Memoria Historikotik ezabatzea ez dugu onartu behar.

Euren burua aldarrikatzen duten emakumeek sistemaren ordena asaldatzen dute; gehiengo soziala garelako, baina gehiengo menderatzailetik kanpo gaudelako.

Hori guztia kontuan hartuz, Udalbatzan honako Mozio hau aurkezten dugu bertan onartzeko:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

MOZIOA


1. Larraulgo Udala LGTBI pertsonentzako tratu-berdintasunerako eskola-bizikidetzako planak edo ekintzak hezkuntza-esparruan lantzerantz edo lantzen jarraitzerantz (kasu bakoitzaren arabera) konprometitzen da.
2. Larraulgo Udala, COVID-19aren pandemiak ekarri digun errealitate berrian, gizarte askeagoa eta berdinzaleagoa eraikitzeko lan egitera konprometitzen da.
3. Larraulgo Udalak emakume-bikoteekiko baldintza diskriminatzailea —ezkonduta egon behar dute jaioberriak inskribatzeko— ezabatzeko eskatzen dio Erregistro Zibilari.
4. Larraulgo Udalak LGTBI Euskal Lege Integral bat prestatzeko eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari.
5. Larraulgo Udalak LGTBI Euskal Kontseilua sortzeko eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, gizarte-eragile publikoen eta pribatuen parte-hartze aktiborako espazio gisa.
6. Larraulgo Udalak emakume bisexualei, lesbianeiei eta transexualei lotzen zaizkien estereotipoekin amaitzeko eskatzen die erakunde publiko eta pribatuei.
7. Larraulgo Udalak arlo honetan eskuduntza duten erakunde guztiei emakume transexualen prestakuntza eta espezializazioa sustatu dezaten eskatzen die, emakume horiek prostituziotik atera ahal izateko.”

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho batez, PSE-EE PSOE taldeak aurkezturiko, LGTBI Harrotasunaren egunaren inguruko mozioa bere osotasunean onesten du.

4.2.ORAIN ARDURA, HERRITARREN EKIMENAREN IZENEAN AURKEZTURIKO MOZIOAREN AZTERKETA, HALA BADA.

Ikusirik ORAIN ARDURA, herritarren ekimenaren izenean aurkezturiko mozioa, non ondorengo dioen:

“Aste luzeetako sufrimenduaren ondoren, gure senideak erabateko bakardadean hil direnean, pandemaiaren aurkako borrokan ospitaletako langileek lan-baldintza kaskarretan larrua utzi dutenean;



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


egoerari aurre egin ahal izateko adinekoen egoitzetako langileek ezinezkoak egin dituztenean; arnasgailurik ez zegoenean gaizorik dauden pertsona guztientzat edo testak eta babes-ekipoak falta izan direnean, gizarteak egoera zail honen aurrean bultzatu dituen portaera eredugarriak azpimarratu nahi ditugu, kontaezinak izan baitira elkartasun ekimenekin.

Gizarteak erantzukizun handiz jokatzeko ari da krisi larri honetan, eta berak markatzen digu jarraitu beharreko bidea. Horregatik, etorkizun zalantzagarriaren aurrean, erakundeak egoerak eskatzen duen mailan egon behar dira, erantzukizunez jokatzeko eta orain, inoiz baino gehiago, dirua oinarrizko gizarte-zerbitzuetara eta krisia bereziki pairatu duten sektoreentzako laguntzetara bideratzen. Honengatik guztiarengatik, "ORAIN ARDURA" ekimena bultzatu dugun pertsonak, elkarteak eta sindikatuek erakunde eta administrazio publikoei eskatzen diegu Abiadura Handiko Trenaren obra eta proiektuetan gastatzen ari diren funts publikoak oinarrizko behar horietara bideratzea, honako argudio hauetan oinarrituta:

Espaniako Estatuak munduan abiadura handiko treneko kilometroetan milioi bat biztanleko kilometro gehien duen estatua da, Japonia, Alemania, Frantzia, AEB eta beste hainbat herrialderen oso aurretik. Hala eta guztiz ere, azken tokian dago erabilerari dagokionez, eta kilometroko bidaiari-ratio baxuena du. Gainera, gogorarazi behar dugu sustapen ministerioaren datuen arabera, bideaiarien % 6k baino ez duela erabiltzen habiadura handiko trena; ohiko trena, berriz % 94 erabilera du.

Gipuzkoan, 2020ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren arabera "Euskal Y"ko lanak lurraldean bukatzeko 540 milioi euro gastatu behar dira oraindik. Gainera, "Euskal Y" Iruñearekin lotzeko proiektua eginda dago eta ingurune-inpaktuen ebaluazioaren zain dago. Lotura hori Aralar zulatuz egingo balitz 2.000 milioi euro inguru kostatuko luke. Guztira, gainkostuak ez badira gertatzen, 2.500 milioi euro. Krisi-une honetan, eta aurreikuspenak kontuan hartuta, garrantzitsua da diru guzti hori oinarrizko gizarte-premietara bideratzea.

Beraz eta adibide gisa, azpimarratu behar da "Euskal Y" eta Iruñea arteko AHT ren lineak balio duenarekin, Aralar zulatuz eraikitzen bada, duela urte eta erdi inauguratu zen Eibarkoa bezalako 75 ospitale eraiki litezkeela. Gainera, kontuan hartu behar dugu, AHT ren lineak eraiki ordez, gaur egungo trenbideak berri eta egokitu daitezkeela, kostu



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

askoz txikiagoetan. Horrela herriak, hiriak eta industrialdeak lotzen dituen tren sozial bat izango genuke, pertsonak nahiz salgaiak garraitzen dituen, gune isolatuak utzi gabe lurraldea egituratzen dena eta edozein pertsonarentzat ekonomikoki eskuragarria dena.

Azpiegitura hauek milioi askotako inbertsioak eskatzen dituzte eta, bitartean, murrizketa handiak egin dira oinarrizko zerbitzuetan, hala nola, osasunean, hezkuntzan edo hainbat gizarte-zerbitzuetan. Hori dela eta, osasun-krisi izugarri honetan egunero ikusi ditugu ospitaleak gainezka, osasun-langileak txandak bikoizten, adinekoen egoitzak beren zorian abandonatuta, jendea bakardadean hiltzen, hotelak ospital bihurtuak, etxeetan maskarak eta kareta egiten, eta abar. Ezinbestekoa da azpimarratzea lan horietako gehienak emakumeek egin dituztela, kolektibo bera gizarte honek baztertu egiten duena. Beraz, pertsonen bizitzari eta elkarrekiko zaintzari eusteko behar diren lanen garrantzia aitortu behar da, baina, zoritxarrez, alderdi horiek ere baztertu egiten dira aurrekontuen arloan.

Gainera, milioi askotako inbertsio horiek milaka laguntzako laguntzak eragozten dituzte, bai negozio txikiei eusteko, bai langabezian dauden eta baliabide falta duten pertsonentzako laguntzak izateko, bai eskolak hobetzeko, bai irakaslearekiko ikasleen ratio txikiagoa izateko, besteak beste. Azken finean, sektore ahulentzako eta, oro har, gizarte osoarentzako laguntzak murriztearen eta ezabatzearen kontura diru-kutxak husten dituzten inbertsioak dira.

Ildo horretan, uste dugu estatu osora zabaldu behar direla Isabel Pardo de Vera ADIF-eko presidentearen jarduerak, otsailean Oviedo, Aviles eta Gijon abiadura handiko konexioa baztertu zuenean, “konexio horiak 10 minutu aurrezteko besterik ez luketelako izango, milioi askotako inbertsioarekin”. Hari beretik, komeni da azpimarratzea Abalos ministroak esan zituen hitz zentzudunak kargua hartu zuenean. Orduan gobernuaren apustu berria iragarri zuen : “trenbiderako inbertsioak erabat birbideratzea, urte askotan abiadura handian zentratuegiak egon direlako”. Pedro Azpiazu, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburuaren hitzak ere aipatu nahi ditugu; orain dela gutxi “gastu publikoa murriztu eta obra handiak atzeratu beharko liratekela “ esan baitzuen.

Gaur egun, pertsona guztiek hitz egiten dute datorren krisi latzaz eta zerga-bilketa %20 jaitsiko dela esaten dute. Orain, ekoizpena birkokatzearen eta mugikortasuna murriztearen aldeko apustua egiten ari garenean, ezin dugu jarraitu ezer gertatzen ariko ez balitz bezala.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ondorioz, krisi sozial eta ekonomikoko une hauetan, AHT rako inbertsio ekonomikoko guztia premiazko eta lehentasunezko gaietara bideratzea eskatzen dugu. Hala nola, behar adina langile eta baliabide dituen osasun publikoko sistema batera; adinekoen, mendekoen eta beraiez arduratzen dituztenen kalitateko zainketara; bidezko pentsioetara; pertsona guztientzako oinarritzako diru-sarreretara; kalitatezko hezkuntza publikora; kalitatezko gizarte-zerbitzuetara; zainketen balorizaziora; edo Covid-19aren krisiak larriki kaltetutako sektoreetako pertsonak babestera, besteak beste, merkataritza txikia, kulturaren mundua, eta abar.

OSOKO BILKURAK HARTU BEHARRKO ERABAKIAK:

1.-Udal honek, Euskal eta Espainiako gobernuei eskatzea krisiaren ondorioak arintzen laguntzeko handitu ditzatela oinarritzako gizarte-zerbitzuetarako eta krisiak eragindako sektoreentzako laguntzetarako aurrekontu-partidak; eta, horretarako, Abiadura Handiko Trenaren obretarako eta proiektuetarako erabiltzen diren funts publikoak erabail ditzatela, horrenbestez, obra eta proiektu horiek geldiarazi egin beharko lirakekeelarik.

2.- Hartutako erabakien berri ematea Espainiako Gobernuako Sustapen ministroari, Euskal Gobernuari eta komunikabideei.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ORAIN ARDURA herritarren ekimenaren izenean aurkezturiko mozioa ez onartzea.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 14:45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.